

## HH4koak opil artean

Astelehenean, San Blas eguna aitzakia hartuta, gozatu ederra hartu zuten HH4koek opil goxoak egiten Soroako jangelan. **Amona Argik**, ekarritako orearekin gustura aritu ziren opilak egiten, jangelako Pilar eta Aizpearen laguntzarekin. Familiak ere aukera izan zuten egindako opilak dastatzeko.



## LH1koen askari osasungarria

LH1en "goputza" gaia lantzen ari direnez, askari osasungarri bat prestatu zuten Josefinetan. On egin!



## LH2koak Zientzia Museoa

Dena ez direlako jateko kontuak eta jakin-mina eta burua ere landu behar direlako, LH2koek Zientzia Museoa bisitatu eta egun pasa ederra egin zuten.



## Santa Ageda Hurren

Euskal Herriko boko askotan ohitura den bezala, LH5 eta 6ko lagunek [kopla zaharrak](#) kantatu zizkiguten Hurren Santa Ageda bezperan, makilekin lurra joaz erritmoa markatuz. Ez zuten diru edo janari askorik lortu eskean baina giro polita jarri zuten atarian.



Bertan duzue HH-LHrako Inauterietako jantzien [txosten](#) osoa.



Kaldereroetako irudiak dituzue [batian](#).



Haur danborradako irudiak dituzue [batian](#).

## OHARRAK / AGENDA:

- **LH1:** EOS kontzertu pedagogikoa. Goiz pasa. Otsailak 13.
- **LH1-2:** TINKO Zinema euskaraz. Goiz pasa. Otsailak 11.
- **LH3:** Tabakalera eta Gladisenea. Egun osoko irteera, eguraldia lagun. Otsailak 14.
- **LH3-4:** Igeriketa ikastaroa. Otsailak 10-13. [Zirkularra](#).
- **DBH1C:** Heziketa afektibo sexuala. Formakuntza. Otsailak 13.
- **DBH2:** Eski irteera. Arette-ra. Otsailak 8-9.
- **DBH3:** Heziketa afektibo sexuala eta genero indarkeriaren prebentzioa. Otsailak 12.
- **DBH4 (IEK ikasleak):** REC tailerra Tabakalera. Otsailak 13.
- **BATX1-2:** Irteerak. Egun pasa. Otsailak 14.
- **Eskola Kirola:** 12. jardunaldia. A eta B. Taldeen [irudiak](#).
- **Kirol Elkarte:** Urteko Batzarra. Otsailak 14. [Zirkularra](#).
- **Antzerki Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 17. [Zirkularra](#).
- **Antzerki Eskola:** Antzezlan profesional baten parte hartzeko [deialdia](#). 7-11 urte bitartekoentzat.
- **Zurrimendi:** Otsaileko [irteera](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** Otsailak 7-9.



Zurriola ikastola  
MUSIKAZA ETXEA  
BANTZA ESKOLA

**IKASLE - IRAKASLE EMANALDIA**

Martxoaren 14an, 17:30ean

Aterketarako Zuhaitzi ikastetxean

IKASLE & IRAKASLE EMANALDIA - Ategorrietako Zuhaitzi ikastetxetan ikasle&irakasle emanaldia izango dugu Martxoaren 14an, 17:30ean. Bertan, ikaste talde ezberdinak hartu dute parte: LH2ko musikako ikasleak, kantu taldeak, dantzariak, instrumentistak, ...



**LUR eta AMETS**  
LURETAAAMETS.EUS

otsailaren 7tik **AURRERA**  
**ZINEMETAN**